

## Eki digitala testigantza

Eskerrak etortzeagatik.



**Gizartea aldatzen ari da**, boligrafoa **irauliz** mutur batetik bestera joan gara.

- Ikaslea ilargitik lurrera ekarri nahi izatetik **hodeira bidaliz** gabilta.
- Gelan geldi eta isilik edukizetik, eta gehienez ere informatika gelara bidaiatzen genuen hartatik, gelako egitura **MALGU eta KOMUNIKATIBO**ra aldatu du ordenagailu eramangarri eta wifia teknologiak .

Kazetaritzan ere zerbait aldatu da, kamerak digitalak dira, prentsaurrekoa digitalki jasotzen duzue, ba al da paperean jasotzen duenik? (Baiezkoan, zaindu desagertzear dagoen espezie batekoa zara) Gizartea aldatu egin da, mugikorrek teknologia sozializatu egin dute.

- Prentsaurrekoaren tokia eta ordua ez, Wifia ba ote zegoen galdetu dut... Mikeli eskaera datorren urteko planeko hobekuntza, Elkar aretoan wifia jartzea.

-Zergatik nago hemen? **2013-14 ikasturtean aldaketa bikoitza: EKI proiektua + EKI digitala (2 arlo: MAT eta NAT) Eta NATurreko irakaslea izan naizelako.**

Ikastolen etxeko IKTetan arduradun diren Josune Gerekak eta Oihan Odriozolak aurkeztu zutenean, **proiektuaz liluratuta geratu nintzen**. Gollum-ek Eraztunen Jaunan dioen bezala "Nire altxorra da"

Bi urte pasa dira eta ozenago esan dezaket argiago ez. EKI digitalak **EZ DU ATZERA BUELTARIK.**

- **ZAILTASUNAK?** Bai. Guztiak gaindituz joan gara, **IKASI eta egoera berrietara EGOKITU beharra izan dugu.** Konektibitate arazoak, materiala ezezaguna, egoera berriak, gatazka berriak, irtenbidea emateko errezeta, ideia gutxi...
- ZERTAN da DESBERDINA? **EROSOA** ETXERA ez dugu EZER FISIKORIK eramaten. Guztia hodeian **gordea** dugu eta nahi dugunean **BERRERABILTZEKO prest** dugu.

**OSOA, GLOBALA, INTEGRALA**, ikasketarako beharrezko guztia plataforma berean du **ikasleak, guztia eskura du:** egoerak, lanerako fitxak, euskarriak, ekoizpenak... **irakasleak ere klik batean ESKURA:** aurrekoa+ikasleen lana, soluzionarioa eta azterketak ere bai.

**EGUNERATUA**, liburu digitalean erroreak (tipografikoak, kontzeptualak, helburua bete ez duten jarduerak...) zuzendu direla ikusi dugu. Digitalean liburua egunero **EGUNERATZEN ZAIGU.**

-----  
**Garrantzitsuena ordea ez da Teknologia**, teknologiaz irakasleek egin genezakeena ere ez. Garrantzitsuena, teknologiaz **IKASLEEK EGIN eta EGINEZ IKASI DEZAKETEN HURAXE da.** (Jordi Adell)

Proiektu honetan **ikasle artean LAN KOLABORATIBOA, PARTEKATZEA, BERDINEN ARTEKO LAGUNTZA, KONKURRENTZIA, KOMUNIKAZIOA bultzatzen** da. Artxibo edo aplikazio berean 4-5-6 ikasle momentu berean lanean ari dira. 30 ere izan ditut momentu berean. Batzuk aurkeztzen, besteak entzuten, irakurtzen, zuzentzen, balioesten...

**Irakaslearen ROL ALDAKETA nabaria da**, bai EKIn eta nabarmenago EKI digitalean. **Irakaslea probokatzaile, bideratzaile, bidelagun bihurtzen da** eta protagonismoa galtzen du.

**PROTAGONISTA ikaslea da**. Eta adin kontuak muga ez bagenitu beraiek eman behar lukete gaur testigantza.

- **ERRAZTASUNAK?** Guztiak. Zorte ikaragarria gure ikastolako **guztien prestutasunarekin**; zuzendaritza, irakasleria, guraso eta batez ere IKASLEEKIN.. **eta EKI prestakuntza** eman duten egile guztiekin; aurrez-aurreko prestakuntza zein **bideo-tutorial bidezkoa bikaina** izan da.

- **ORAIN zertan ari gara? Ikasten ari gara. Klasea emateko era aldatzeko pentsatzen, klasea irauli nahian...flipped classroom (“flipt clasrrum”)**

**Gelan egiten zena etxean egin eta etxean egiten zena klasean egin nahian**

- Etxean -bakarka- irakurri, ikusi, entzun...
- **Klasean EKIN, taldean lanean aritu, IRAKASLEAren laguntza eta gidaritza jaso.**
- Etxean berriz ere idatzizko ala ikus-entzunezko tutorialen laguntzaz ZUZENDU.

Ikasteko asko dugu oraindik ordea: **EBALUAZIO DIGITALA.**

Eta aurrerago **ERREALITATE AREAGOTUA**

Gela irauli nahi dugu. Horretarako teknologiaren beharra dugu. Baina teknologia deus gutxi da pedagogiarik gabe.

**EKI+digitala: EKI pedagogia eta digitala teknologia.**

**EKI DIGITALA, gizarteak egina duen garapenari emaniko erantzun logiko bat da: **Ikasle konpetenteak heztea, hiritar digital arduratsuak prestatzea, helburu duena.****

Hala ulertu dugu ikastolek eta EKI digitalean 5 ikastola arizetik 35 bat izatera pasa gara. Ba al da beste inor prest??

- Bukatzeko, hau guztia egiteko ekipazio teknologikoa beharrezkoa da. Eta administrazioak bere laguntza programak eten egin dituzenez, berriz ere guraso eta langileengan esfortzua, proiektua aurrera emateko 3000 Chromebook erosi eta gelara ekarriko ditugu irailerako. **Askotan bezala gizartearen atzetik dabil eskola. Oraindik ere atzerago administrazioa.**

**Mila-mila esker zuen arretagatik... Argitzekorik?**